

TXILLARDEGI
Erref. kodea: LAF-220-192 [82]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak: *lagun...*

Txillardegi: *Euskararen ezaugarri
nagusiak*

txillardegi

EUSKARAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Nekez asma daiteke zehazki, euskararen ezaugarri nagusiak ematerakoan.

Hemen, horregatik, euskararen ezaugarri batzu aipatuko ditu gu. Gure hizkuntzan aspaldidanik ongi erroturik daudenak; eta beste tik, ondoko erdaretatik berezten dutenak.

I.- EUSKAL FONETIKAZ

A.- IGURZKARIEN HIRUKOIZTASUNA

Bai igurzkariak, bai afrikatuak, bi sail hirukoitzetan taxu daitezke, korrelazio honen arabera:

$$\frac{[s]}{[c]} = \frac{[s']}{[c']} = \frac{[s̺]}{[c̺]} = \frac{\text{(igurzkariak)}}{\text{(afrikatuak)}}$$

Gaur bizkaieraz gertatu den neutralizazioa:

$$\begin{aligned} [s] + [s'] &> [s̺] \\ [c] + [c'] &> [c̺] \end{aligned}$$

gertabar~~o~~ berria da.

Hots, hiru ordenu horiek batera gertatzea ez da maiz gertatzen.

Oposizioa, dena dela, azkarrago agertzen da bi lehendabiziko ordenuen artean, bigarren eta hirugarren ordenuen artean baino; aspaldiko denboretan bi ordenu izan balira bezala.

hasi ≠ hazi — atso ≠ atzo
esker ≠ ezker — hots ≠ hotz

B.- /f/ FONEMAREN URRITASUNA

Aspaldidaniko hitz bat edo beste kenduta (afari), /f/ fonema duten hitz guztiek arrotz itxura nabarmena dute; aspaldiko denboretan igurzkari ezpain-orzkaririk izan ez balitz bezala.

Kutsu berbera uzten dute "afari" hitzaren aldakiek berek : "aihari", "auhari", "auafi", "abari", "apari". Badirudi, bestalde, gure /f/ horrek [∅] balio fonetikoa izan duela, eta ez [f] gaurkoa.

Kaskoinerak eta gaztelaniak /f/ ri buruz erakutsi duten uko a, euskal sustratoaren bidez azaldu ohi da; eta honetan Kaukaso-ko hizkuntzetara hurbiltzen gaitu. (askhaz, bereziki).

Gaur dena dela, /f/ fonema normaltzat eman daiteke zenbait euskalkitan.

D.- /r/ FONEMARIK EZ HITZ-HASERAN

Euskarak ez du erdal r- fonema inoiz bere horretan hartu, a- edo e- epentesiaren bitartez baizik:

lat. <u>rota</u>	eusk. <u>errota</u>	<i>f. roc eusk. arroka</i>
<u>rege</u>	<u>errege</u>	<i>f. rez eusk. irrisa</i>

Sustratu bidez, joera berbera aurkitzen da kaskoineraz; eta, hein batez bederen, aragoieraz.

E.- HASPERENKETA

Hiru modutara aurkitzen da aspaldidanik (gaur egun Iparralde ko euskalkietan bakarrik):

1.- Hitz-haseran eta bokale artean:

hartu; ihar

2.- l, n eta r-ren ondoren, muga fonikoa h-aren aurrean dagoen larik²

alhaba; senhar; orhoitu

Ba_dirudi hasperenketa (aspirazioa) eta azentua elkarri datxez kiotela.

F.- BUSTIDURAREN BALIO SEMANTIKOA

Gauza ezaguna da, kontsonante bat euskaraz "busti" edo pala talduz gero, denotazio soilari, kutsu bihozkorra erasten zaiola:

mutiko > muttiko
gozo > goxo

Bustidurak ondoko kontsonante hauek ikutzen ditu: l, r, d, t, z, s, tz, ts.

G.- DARDARKARIAK: XAMURRA ETA AZKARRA

Gaurko euskarak (Ziberera alde batera utzita), [r / r̄] oposizioa ezagutzen du:

oro ≠ orro
bare ≠ barre

Zenbait aztarnak, dena dela, aspaldiko denboretan dardarkari bakar bat zegoela idarokitzen dute; euskara, honetan, Kaukaso-ko hizkuntzetara hurbilduz:

a) Hitz zahar batzutan ageri den bikoiztasuna:

beriz = berriz
hori > horrek
harezkero = harrezkero

b) Hitz-elkartu zaharretan somatzen dena:

lur > lubizi
hamar > hamabi

Aspaldiko euskara, beraz, Kaukaso-ko hizkuntzetatik hurbiltzaz bide da honetan. Gauza bera antzinako leku-izenetan:

iluberi / iluberri

H.- EUSKAL ASIMILAZIOA

Ahostasunari dagokionez, eta honetan ere ondoko erdaretatik urruntzen delarik (hizkuntza keltikoak salbu), euskarak lege hau betetzen du orain dela hogeiki mende gutxienez:

ahoskabea + ahostuna > bi ahoskabe

Adibidez:

ez dakit > eztakit

ez gaitu > ezhaitu

ez bait daki > ezpaitaki

Plegu bereko sandhi da ondoko hau:

horiek dira > horie tira

I.- AZENTUA

Zibereraren azentua salbu (eragin romanikoaz omen), euskal azentua oso urruti dago hizkuntza indo-europar eta semitikoetatik eta bertago, itxuraz, hizkuntza fino-ugriarretatik.

Denak idarokitzen du, dena dela, aldakuntza garrantzitsuak gertatu direla euskal azentuan.

II.- EUSKAL MORFOSINTAXIAZ

A.- JENERURIK EZ EUSKARAZ

Kaukaso-ko zenbait hizkuntzatan bezala, euskarak ez du gramatika-jenerurik ezagutzen. *Ez eta anglosah ere.*

Baina aditz-jokoan setsu-marka ageri da (ez beti, dena dela). *Tu-no-ko jokoan bahamih eta ez beti orduan eu: haiz*

B.- NUMEROAREN ARAZOA

Gaurko euskarak hiru numero ezagutzen ditu:

(zenbait) gizon, (zenbait) gizoni

gizona , gizonari...

gizonak , gizonei ...

Ikuspegi diakroniko batetik, ordea, aisa ageri da bigarren eta hirugarrenaren elkarketa-kutsua (art. -a < er. hura); eta badi rudi, hitz batez, numerorik gabeko egoera bat ezagutu duela euskarak aspaldiko denboretan.

Honek, berriro ere, Kaukaso-Mendebaldeko hizkuntzetara hurbiltzen gaitu (abkhaz). *Bertako ez latinera?*

D.- KAUSATIBO EDO ERAGILEA

Bide berria erazi aditza erastea da:

erosi > eros-erazi

saldu > sal-erazi

Bide zaharra, ordea, gaur fosilduta, -ra- atzizkiaz baliatzea zen:

egin > eragin

ekarri > erakarri

Berriro ere, Kaukaso-ko hizkuntzak bide dira hurbilena:

r- (abkhaz)

E.- ELKARKARIA ETA BIHURKARIA

Puntu honetan ere, oso bide berezia ezagutzen du euskarak; Kaukaso-ko hizkuntzetatik hurbilago itxuraz:

1.- Elkarkaria

Nik zu maite zaitut

Zuk ni maite nauzu

Hortaz: guk ELKAR maite dugu

Elkar hitza deklinatu egiten da eElkarri, elkarren, elkarrengandik ...

2.- BihurkariaNik neure burua hilko dutZuk zeure burua ezagutzen duzu

Kaukaso-ko hizkuntzetan "-re burua" horixe erabiltzen da, e ta ez izenorderik: georgiano, abkhaz.

F.- EUSKAL ADITZAREN EGARITASUNA

Lafon-en hitzez esateko, "la complexité" du verbe basque con traste avec la simplicité de la déclinaison". Eta, bererriro ere, Kaukaso-Mendebaleko hizkuntzak gogorazten dizkigu ezaugarri honek.

Euskal aditzak bat, bi hiru, are lau, sugeturen arabera mol datzeanda:

<u>sartu naiz</u>	(ni)
<u>sartu natzaio</u>	(ni-hari)
<u>sartu naute</u>	(n̄m-haiek)
<u>sartu diot</u>	(hura-hari-nik)
<u>sartu zioat</u>	(hura-hari-nik, etiko)
<u>sartu zizkioat</u>	(haiek-hari-nik, et.)

Aspektuak (bi sail bikun) eta denborak aditz-jokoan sartzen direnez gero, euskal aditzak ugaritasun harrigarria da.

Elkarrizketan entzule dagoena bereziki aipatzeari "hitano" deritza euskaraz; eta oso ezaugarri berezia da: "la conjugaison bas que comprend tout un jeu de formes que l'on appelle allocutives, et qui constituent un de ses traits les plus originaux" (Lafon)

Gero eta osokiago, euskal aditza laguntzailez lortzen da; baina antzinako denboretan, galtzen hasia dena dela, aditz azkarra bazegoen (laguntzailerik gabea, alegia):

etortzen nintzen / nentorren

F.- HIRU SUJETUAK

Euskal perpausan, normaltzat eman daiteke hiru sujeturen e
gokiera:

nik amari liburua erosi diot

Alegia:

nork erosi : nik (-t)=

zer erosi : liburua (d-)

nori erosi : amari (-Ø-)

Gramatika sortzailean "bihurkuntza pasibo" deituko genu
keen hori, euskaraz ez da erabiltzen. Erdarazko "pasiva/activa"
oposiziorik ez dago euskaraz; ergatibo (nork) eta datibo (nori)
kide hertsia dira; eta, hitz batez, euskal aditzaren pasibotasu-
nik ez dago. Euskal joskera bakarra baita: ez bata, ez bestea. "A
llí donde no hay oposición de voz que enfrenta formas pasivas a ac
tivas, el verbo holo puede ser considerado como neutral o indiferen
te a este respecto" (Čikobava, Mitxelena)

Dena dela, inoiz falta ez den elementua NOR da; eta, sen-
tidu horretan, euskal aditzaren ardatza NOR dela esan behar da; e-
ta NORK ~~eta~~ NORI erantsiak direla (-K eta -I atzizkiak erantsitak
har daitezkeen bezala). Era berean, eta deklinabideari dagokionez,
NOR elementuari dagokio Ø marka.

Erdal sujetua, dena dela, eta euskal hiru sujetuok, guztiz,
dira desberdinak eta erkatu ezinak: "le fait que l'accord ainsi é-
tabli se fait avec chacun des trois déterminants, oppose nettement
l'accord basque et celui des langues indoeuropéennes traditionne-
lles" (Martinet)

G.- HIRU KASU NAGUSI

Horri atxekirik, oso leku berezia dagokie NORI eta NORK ka
suei; -ko atzizkia ezin baitzaizkie atzetik erants. Antzinako de-
klinabidea, abkhaz-ekoaren antzera, hastapenetan murrizta izan ba

litz bezala.

Berriro ere, hortaz, euskal deklinabidea ximplea izan dela esan dezakegu; eta gero, baina ez oso aspaldian, atzizki mordo bat erantsi zaiola. Atzizki mordo hau, ordea, -koren bitartez froga daitekeenez, bestelakoa da; eta gerozkoa segur aski.

H.- EUSKAL ERRELATIBOA

Gramatika sortzailearen arabera, errelatiboa izaten da transformazio-bidez, eta ez bestela, azal daitekeen perpausa moldeetako bat.

Hots, besterik ezertan ez dira desberdinago ageri euskarra eta ondoko hizkuntzak:

el hombre que has visto hoy
l'homme que tu as vu aujourd'hui
 1 2 3 4 5 6 7

= gaur ikusi duzu-n gizon-a
 8/ 5 4 3 2 1

I.- IZAN ETA EZ IZAN

Lafon-ek behin eta berriz azpimarratu duenez, euskal aditzaren biketan hau ageri da: iragana ez dagokion orainari, agian-eko aditz-jokoei baizik:

nator / nentorrel, banentor
dugu/ genuen, bagenu

Iragana, hitz batez, ez-izanekin doa euskaraz; izan-arekin loturarik ez balu bezala.

Iraganaren marka, bestalde, (-n) Abkhaz-ez aurkitzen den berbera da.

J.- "BAT" ATZETIK

Abkhaz-ez bezalaxe, zenbakari guztiez bestaldera (hiru etxe, lau etxe, hamar etxe), "bat" atzetik doa: etxe bat

BIBLIOGRAFIA

- LUIS MICHELENA: "Sobre el pasado de la lengua vasca" Auñamendi, 1964
- ANTONIO TOVAR : "La Lengua Vasca" Amigos del País, 1950.
- LUIS MECHELENA: "L'euskaro-caucasien- Le Langage" (Pléiade), pp. 1414-1437 - 1973.
- RENE LAFON : " La lange basque" - Musée Basque, Bayonne, 1973.
- RENE LAFON : " Etudes basques et caucasiques - Salamanca, 1952
- KARE BOUDA : "Introducción a la Lingüística Caucásica - Salamanca, 1982.
- ANDRE MARTINET: " La linguistique synchronique " (206/222), PUF, Paris, 1968.
- ANDRE MARTINET: " Economie" (370/388) - Ed. Francke, Berne, 1970.



